# TANTTAKA 2015

*Tantarik tanta… Berdintasunaren olatua!*

BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO-UNITATEA / UNIDAD ADMINISTRATIVA DE IGUALDAD • AZAROA / NOVIEMBRE • I



*"…el miedo de la mujer a la violencia del hombre es el espejo del miedo del hombre a la mujer sin miedo".*

*Eduardo Galeano*

*Suzanne Valadon. "Self-Portrait" (fragmento). 1898*

## EDITORIALA

### ONGI ETORRI TANTTAKA BULETINERA!!

Hemen duzu **"Tanttaka"** buletin digitala. Buletina saileko berdintasun unitateak sortutako ekimena da. Horren bitartez, ikusarazi eta balioetsi nahi dugu, sailean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiketan ematen diren aurrerapausoak. Hain zuzen ere, buletinaren izenak pauso zein urrats horiek goraipatu nahi ditu; **pertsona bakoitzak berdintasunaren alde egiten dituen ekintzek eta ematen dituen aurrerapausoek, ur tantak balira bezala, poliki-poliki, blai egiten dutelako berdintasunerako bidean.**

Buletina hilero argitaratuko da, eta horretan aurkituko dituzu hurrengo atalak: ***Berbetan***, berdintasunean adituak diren pertsonekin elkarrizketak; ***Ur-tantak***, Administrazioak berdintasun politiken baitan egiten dituen ekimenak, proiektuak zein programak; ***Zurea da hitza!***, saileko langileen iritzia eta hausnarketa berdintasunarekin harremana duten hainbat gairen inguruan; ***Ba al dakizu?***, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunen inguruko berri laburrak, edo historian zehar emakumeek egin dituzten ekarpenen inguruko berriak; eta ***Uhinak***, berdintasunaren inguruko erreferentzia kulturaleko berriak –liburuak, antzerkia edo filmak–.

Kontuan izanik **azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna** dela, lehenengo ale honek gai horren inguruko edukiak jorratzen ditu.

Buletina zure interesekoa izatea espero dugu, eta zure parte-hartzearekin aberastea.



*Olatz Garamendi Landa*
*Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea*

# *"Las hijas e hijos también son víctimas de la violencia de género"*

**MARÍA NAREDO, ES JURISTA ESPECIALIZADA EN GÉNERO Y DERECHOS HUMANOS. EN LA ACTUALIDAD ASESORA A EMAKUNDE PARA AVANZAR EN LA PROTECCIÓN E INTERVENCIÓN CON LAS NIÑAS Y LAS NIÑOS QUE CONVIVEN EN HOGARES EN LOS QUE SE PRODUCE VIOLENCIA DE GÉNERO.**



**¿Cuál es el trabajo que estás desarrollando junto con Emakunde y otras instituciones de Euskadi en materia de menores víctimas de violencia de género?**

El trabajo fundamental que estamos desarrollando es informar a las y los profesionales de los cambios legislativos y avances que se han producido en materia de protección de los derechos humanos de las niñas y los niños que conviven en entornos en los que se produce violencia de género.

Así mismo se está formando a profesionales desde un enfoque integral que contempla los derechos humanos, el análisis de género y la infancia. Para ello se está trabajando de forma coordinada con Emakunde, Ararteko, Ertzaintza, Sanidad, Educación, Servicios Sociales, Justicia, Diputaciones, Eudel, y otras instituciones para alcanzar **enfoques homogéneos, objetivos compatibles, y un mismo horizonte de intervención.**

**¿Cuáles son los principales cambios legislativos y avances en materia de protección de las y los menores expuestos a la violencia de género en sus hogares?**

El primer avance fundamental es que la **LEY DE VIOLENCIA DE GÉNERO SE HA REFORMADO, Y AHORA RECONOCE DE UN MODO EXPRESO COMO VÍCTIMAS DIRECTAS A LOS NIÑOS Y LAS NIÑAS QUE CONVIVEN EN ENTORNOS DE VIOLENCIA GÉNERO.** Esto sitúa a las y los menores como **"titulares de derechos"** y a las **instituciones como "titulares de obligaciones"** que deben garantizarles los mismos derechos de asistencia y protección que a sus madres.

Un segundo avance, relativo a la **protección** en la **esfera judicial**, implica que los jueces y juezas tienen que reconocer a esas y esos menores en la **"foto del maltrato"**, lo que por un lado supone que tengan que fundamentar la concesión o denegación de la **orden de protección** no solo a la madre sino también a sus hijas e hijos, y por el otro, que tengan que pronunciarse sobre la **suspensión de la patria potestad, la guarda custodia y el régimen de visitas.**

En el caso de no acordarse las mencionadas medidas, tendrán que garantizar la protección de estas y estos menores.

Además, la nueva normativa obliga a las administraciones a arbitrar **recursos especializados** (de atención, de recuperación) para estas niñas y niños.

Finalmente, otra de las mejoras es que las instituciones deben **garantizar la permanencia del niño o niña con la madre y su recuperación conjunta.**

**¿Cuáles son las consecuencias y los derechos que quedan conculcados cuándo un o una menor se encuentra en un hogar donde se produce violencia de género?**

Es importante visibilizar que estas y estos menores **están sufriendo una violación de derechos humanos** (derecho a la integridad física y psíquica, derecho al más alto nivel de salud, derecho a la libre elección de residencia, derecho a la educación…). En este sentido, es necesario presuponer que esta violencia tiene en la vida de los y las menores impacto en diferentes esferas, que a su vez, se relacionan entre sí. Es probable que esa exposición a la violencia genere un estado de ansiedad, estrés, trastornos de sueño en la o el menor, lo que previsiblemente impactará también en su rendimiento educativo, en su trayectoria académica e incluso en sus oportunidades desarrollo personal y laboral en el futuro…

**¿Cómo se resuelve la contradicción entre el derecho de los niños y las niñas a ser protegidas contra la violencia, frente a otros derechos, tales como el de la patria potestad del padre?**

En esta cuestión me parece clave entender que todas las normas plantean que **LA PROTECCIÓN FRENTE A LA VIOLENCIA ES UN DERECHO ABSOLUTO Y PRIORITARIO DE LA NIÑA O EL NIÑO.** En cambio los derechos de relación paterno filial, incluido el ejercicio de la patria potestad, son **"derechos-deber"** y, por tanto son relativos, ya que su ejercicio está condicionado a que no suponga prejuicio o malestar a la o al menor de edad.

**¿Cuál es el trabajo fundamental y los retos que tiene el ámbito educativo para proteger y atender a estas y estos menores ?**

**En cuanto a la prevención**, es fundamental el papel de la escuela en el **cambio cultural** que debe darse. Este trabajo hay que realizarlo de una forma integral y sistemática en todas las enseñanzas y niveles del sistema educativo.

**Con relación a la detección precoz** de los casos, es necesario un **"cambio de mirada"**: el profesorado debe asumir que esta es una cuestión que le compete, dado que el **100% de las víctimas están en las aulas a diario.** En este sentido, la buena formación del profesorado es imprescindible y también poner a su disposición recursos, herramientas (webs, guías, etc…) y asesoramiento.

En cuanto a la **garantía de no repetición**, la escuela debe minimizar todos los impactos para ese niña o niño y poner a su disposición recursos especializados (acompañamiento, etc..).

En definitiva, este tema debe de ser **PRIORITARIO EN EL SISTEMA EDUCATIVO Y TIENE QUE HABER UN COMPROMISO POLÍTICO EN CLAVE DE DERECHOS HUMANOS PARA ATENDER Y PROTEGER A ESTAS VÍCTIMAS QUE ESTÁN TAMBIÉN EN LAS AULAS DE EUSKADI.**

## UR TANTAK

# BADATOR BELDUR BARIK TOPAKETA!

Beldur Barik **gazteei zuzendutako indarkeria sexista prebenitzeko programa** bat da, EAEko instituzioek elkarlanean bultzatzen dutena, eta **Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila laguntzailea da** beste urte batez. Programaren helburua da gazteekin batera hausnarketa eta eztabaida prozesuak sustatzea jendartea eraldatzen laguntzeko.

Programa horren baitan Beldur Barik **ikus-entzunezko** lehiaketa eta topaketa egingo dira. Lehiaketa 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta **adierazpen artistikoak saritzen** ditu. Lan horiek erakutsi behar dute neska eta mutilek nola **egiten dieten aurre ezberdintasun egoerei Beldur Barik jarrerarekin:** errespetua; parekidetasuna; askatasuna eta autonomia; elkarkidetza eta indarkeria sexistaren bazterketa irmoa adierazten dituzten jarrerekin. Gazteek aurkeztutako lanak hurrengo estekan dituzu ikusgai: **http://beldurbarik.org/2015-lanak/**

Beldur Barik 2015 **Topaketa Amurrion** egingo da, **azaroaren 28an**, eta bertan tailerrak, kalejira eta lehiaketaren sari banaketa egingo dira.

Informazio gehiago:
**www.beldurbarik.org**

## ZUREA DA HITZA!

### *Zure ustez, zer egin behar da, ezinbestez, emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeko?*

"Nire ustez, arazo larri honen aurrean, egin beharreko ekimenak asko dira, baina hezkuntza da bereziki landu beharko litzatekeen arloa; izan ere, indarkeria-portaerak belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira. Prebentzio jarduerak bultzatzeko, ezinbestekoa da diru-laguntzak areagotzea eta hezkuntza ziklo guztietan esku-hartzea. Are gehiago, uste dut, ume eta gazteekin lan egiten duten profesionalei ere formakuntza egokia eman behar zaiela".



*Iratxe Gutierrez*
*Administrari laguntzailea*

"No soy ningún experto en el tema, pero el sentido común me dice que el hombre, por un lado, debe interiorizar que por el mero hecho de serlo no ocupa ningún escalón superior al de la mujer y, por otro, que debe resetear su cerebro para así poder poner en orden su caos neuronal y abandonar de una vez para siempre ese complejo de inferioridad que le hace utilizar la violencia para resolver sus problemas cotidianos de todo tipo. La violencia contra la mujer no puede ser de ningún modo una válvula de escape para justificar sus errores y su "malestar-consigomismo".



*Carlos Aiestaran*
*Técnico de Gestión económica*

## *Ba al dakizu?*

### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2015ean, **3.870** kasu jakinarazi dira. Horietatik...

**... bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeriaren biktima** izan zirela salatu duten **66 emakumek** 18 urte baino gutxiago dituzte, 2014an baino 22 gehiago.

... askatasun sexualaren aurkako erasoei dagokienez, emakumeek, zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta arrisku handiagoa dute indarkeria hori sufritzeko: **%46,70**ek 18 urte baino gutxiago dituzte.

Iturria: Segurtasun Saila.

## UHINAK




**Bilboko Azkunan Zentroan "Why not Judy Chicago?"** izeneko erakusketa dago ikusgai **urtarrilaren 10era arte.** Erakusketak **Judy Chicago artistaren lana** jasotzen du: arte feministaren aitzindarietako baten lanari buruz Europan egin den erakusketarik garrantzitsuena da.

Judy Chicagok, bere lanaren bidez, azaleratzen du **artean emakumeek eta arte feministak berak jasaten duten errekonozimendu falta.**